



Usurbilgo Udala

**USURBILGO ETXEBESTE ETA HIRUTASUNA KALEEN URBANIZAZIO OBRA  
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK.  
PROZEDURA IREKIA**

**I- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1.- KONTRATUAREN GAIA**

Kontratuaren xedea hau da: Usurbilgo Etxebeste eta Hirutasuna kaleen urbanizazio obra burutzea (CPV: 45000000-7 eta 45233251-3). Proiektu teknikoak administrazio plegu hauekin batera kontratu izaera du.

Kontratazio hau obra-kontratu administratibo gisa gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 6. artikulua xedatzen duenaren arabera.

**2.- HAUTAKETA ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA**

Kontratua adjudikatzeko prozedura irekia izango da. Edozein enpresarik aurkeztu ahal izango du bere eskaintza, negoziaketa modu oro bazterturik geratuz, SPKLTB-ren 157 artikuluaekin bat.

**3.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen xede diren obrak burutzeko epea hau da: 4 hilabete, zuinketa-akta izenpetu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen epe hori. Abuztua ere lan hilabetea izango da eta proposaturiko epearen barruan kontuan hartuko da. Udalak ezohiko arrazoiak tarteko obra lanak eten ahal izango ditu. Zehazki herriko festak direla eta ekainaren 27tik uztailaren 5era bitartean, biak barne, ezin izango da lanik egin eta egun horiek ez dira exekuzio epe gisa kontatuko. Kontratu honen esleipendunak, nolana ere, Obra Zuzendaritzaren jarraibideak bete beharko ditu lanak koordinatze aldera.



Usurbilgo Udala

Obrak epe horietan ematen ez badira, kontratistak berandutzegatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

#### **4.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 240.585'11 € gehi %21eko BEZari dagozkion 50.522'87 €, guztira 291.107'98 €-koa izango da. Lizitazailleek aurrekontu hori hobetu dezakete.

Prezio horretan sartuta egongo dira kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak, hau da, obra egoki gauzatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren edozein lan, bitarteko osagarri eta materialak, laneko segurtasun eta osasuneko elementuak.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrendarik EZ da egongo. Izan ere, proiektu teknikoko banakako prezioei esleipendunak eginiko jaitsiera orokorra aplikatuz lorturiko prezioak izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean.

#### **5.- FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioari aurre egiteko aurreikusita dago indarrean dagoen aurrekontuko "1.7000.601.153.00.02" kontu-atala.

#### **6.- ORDAINTZEKO MODUA**

Obra burutuak hileroko aldizkakotasunez ordainduko dira, egiaztagiria egindakoan. Obren zuzendariak egingo ditu egiaztagiri horiek, Udalak baieztatu ondoren, eta ordainketa horiek kontura egindako ordainketa izaera izango dute eta azken neurketan egiten diren zuzenketa eta aldaketan menpe geldituko dira. Dena den, ziurtagiri horien ordainketak ez du obraren onarpen edo harrera egin denik esan nahi.

Faktura onartu eta gero, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektorre Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikuluan legeaz aurreikusitako epeak



Usurbilgo Udala

izango dira gehienekoak.

## **7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

## **8.- BERMEAK**

Kontratuaren esleipendunak, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5a izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adierazitakoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzailari egotz dakizkikeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

## **9.- KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, SPKLTB 231. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoen Kontratu Legearen Testu Bateratuan eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez



Usurbilgo Udala

onetsi zen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratatari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Kontratatik kontratuaren exekuzioan beharrezko giza baliabideak zein baliabide materialak erabili beharko ditu (SPKLTB 64.2 artikulua). Gainera azpikontratazio kasuetan SPKLTB 227 artikuluko ukanbeharrak bete beharko ditu.

Obrak seinalizatzear arduratu beharko du bere kontura (obrarako sarbideak, zirululazioa, arrisku puntuak,...) bai eremuan bertan baita inguruko eremutan ere.

### Laneko Segurtasun eta Osasun Plana

Esleipendunak Obrako Laneko Segurtasun eta Osasun Plana egingo du behin kontratua esleitu ondoren, eta plan honek Proiektuko Oinarrizko Segurtasun Azterketara egokitu beharko du. Plana udalak onartu beharko du, obra hasi aurretik, Osasun eta Segurtasun Koordinatzailearen edo Obrako Zuzendaritzaren aurretiazko txostenaren ondoren eta Lan Agintaritzari jakinaraziko zaio. Izapide honen ondoren burutuko dira zuinketa akta eta obraren hasiera.

### Kontratuaren exekuzioan erabili beharreko makina eta ibilgailuak

Ekarri beharreko makinek eta baliabide lagungarriek araudia bete beharko dute, indarrean dagoena, eta haien agiriak aurkeztu beharko ditu horrela eskatzen baldin bazaio. Halaber, obrako ibilgailu guztiek indarrean izan behar dute administrazio dokumentazio guztia (ibilgailuaren fitxa teknikoa, haren altarekin Trafikoko Ibilgailuen Erregistroan, aseguruak eta abar).



Usurbilgo Udala

## **10.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete beharko ditu. Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango lanean ari diren langileekiko. Halaber kontratistaren erantzunkizun pean geratuko dira lan istripuei buruzko erantzunkizun oro.

Lizitazio honetan enpresak aplikatuko duela adierazi duen Hitzarmen Kolektiboak jasotako lan baldintzak aplikatu beharko dizkie obra honetan lanean ariko diren langileei. Enpresa kontratatua behartuta egongo da informazioa ematera, baldin eta eskatzen badiote informazioa emateko kontratuaren xedeko jarduera egiten duten langileei benetan zer lan baldintzak aplikatzen zaizkien. Klausula honetan jasota datozen betebeharrak jotzen dira kontratuaren baldintza berezitat, eta betetzen ez bada, larritzat joko da eta ekarriko du kontratua suntsiaraztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategineko 223.f) artikuluan jaso.

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## **11.- KONTRATU-JABEAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN**

Kontratuaren esleipenduna izango da kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalteen eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Obrak burutzen diren bitartean, kontratistaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu baino lehen, ekarri beharko ditu polizaren



Usurbilgo Udala

kopia eta aseguru kontratu hauen ordainageria:

1.- Erantzukizun zibileko poliza, orokorra, patronala, gurutzatua eta lan bukatuena, eta aseguratu gisa sartuko ditu kontratista, azpikontratatistak, eta administrazioa obren sustatzaile moduan. Gutxieneko estaldura 600.000 €-ko zenbatekoa bermatuko du eta biktima bakoitzeko gutxieneko azpi-estaldura 300.000 eurokoa izango da.

2.- Eraikuntzako arrisku orotako poliza, kalteak estaliko dituena, baldin eta egindako eta egiten ari diren obrek kalteak izaten badituzte, sartuta aseguratu moduan Udala, eta estaldura hauek estaliko dituena:

1) Arrisku hauetatik datozen kalteak: sutea, tximista, leherketa, lapurreta, inpaktua, espoliazioa, trebetasun falta, arduragabekeria, ekintza bandalikoak eta asmo txarrekoak, eta naturatik datozenak eta/edo zerrendatu gabeko beste edozein arrisku.

2) Berme gehigarriak, hauetatik datozenak:

- Diseinu akats, fabrikatzaile arriskua.
- Gastuak ordu bereziengatik, obra hondakinengatik, zerbait eraisteagatik, agintariek hartutako neurriengatik.
- Kalteak sortzea lehendik dauden ondasunei.
- Lanuztea, matxinada eta terrorismoa.

Aseguraturik egongo dira galerak edo kalteak, sortzen baditu kausa batek, hura sortu bada eraikitzekeo aldiaren, baita ere, sortzen direnak aldi horretan edo geroago lanak exekutatzearen ondorioz, egin direnak zuzen betetzeko obra kontratuan jarritako betebeharrak. Polizaren mantentze aldia izango da, gutxienez, urte batekoa, obren onarpena egiten denetik hasita.

Azpikontratei bere kasuan eskatu beharreko seguruaren ardura kontratistarena izango da.

## 12.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri onurako arrazoiak direlako Udalak kontratua aldatzea izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.



Usurbilgo Udala

Aipatu Legearen 234.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua aldatzerakoan obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuan, unitate horien prezioak kontratazio-organoak zehaztuko ditu. Kontratatistak ez baditu prezio horiek onartzen, unitate berri horiek beste enpresa batekin prezio beretan kontratatzeko edo zuzenean burutzeko eskubidea dauka kontratazio-organoak.

### **13.-OBRAK HARTZEA ETA BERME EPEA**

Obrak amaitu ondoren harrera akta sinatuko da.

Gainera, gutxienez urte bateko berme epea egongo da (kontuan izanik enpresa lizitatzailerak epe luzeagoa proposatu dezakeela), harrera formaletik hasita zenbatu beharrekoa, proiektua osatzen duten material, obra eta instalazio guztien berme-epe gisa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, kontratatistak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratatistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleipendunaren esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

### **14. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

Zigorak kontratazio-organoak ezarriko ditu, kontratuaren arduradunaren (kasu honetan udal Aparejadore) proposamenez, eta horiek kontratatistari ordaindu beharreko ordainketa oso edo partzialetatik edo bermetik zigorraren zenbatekoa deskontatzea izango da ordaintzeko era, SPKLTBaren 212.8 artikuluekin bat etorriz.

### **A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA**

Kontratatistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu



Usurbilgo Udala

gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

### **B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA**

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

### **C. KONTRATUA BURUTZEAN AKATSAK EGITEA**

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

### **D. KAUDIMEN KONPROMISOAK EZ BETETZEA**

Kontratistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

Kontratazio organoak, burutzapenaren edozein unetan eta Obrako Zuzendaritzak txostena egin ondoren uste badu ordura arte egindakoa oker dagoela, hala jakinaraziko dio kontratistari, eta kasu bakoitzean ustez arrazoizkoa den epea emango zaio ikusitako akatsak zuzen ditzan. Hala egiten ez badu, kontratazio organoak bi aukera izango ditu: akatsak guztiz konpondu arte goian zehaztutako zigorrak ezartzea (gehienez kontratuaren aurrekontuaren %10) edo kontratua bertan behera uztea, bermea exekutatuz.

## **15.KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**





Usurbilgo Udala

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 237. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratataren erruz amaitzen denean bermea inkautatuko da, dagokion kalte-ordainen eskaeraren kaltetan izan gabe.

## **16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK**

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **17. HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jardura guztietan; hori horrela, enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta, bere kasuan, euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena**:

Zerbitzuen sailak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena,



Usurbilgo Udala

gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko (SPKLTB) 52 eta 222 artikulua jarraiki:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza-baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.
- Ikuskaritza kontratu bukaeran ezezik, modu jarraian ere egingo du kontratu-arduradunak, berariaz prestatutako jarraipen-euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Hizkuntza-baldintzak ez betetzearen **ondorioak**:

Klausula honetan aurreikusitako hizkuntza-baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren arabera, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

## **18.- AZPIKONTRATATZEA**

Azpikontratazioa honakoek arautuko dute: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 227 eta 228. artikuluetan, eta urriaren 18ko 32/2006 Legeak, Eraikuntza Sektoreko Azpikontratazioa arautzen duenak, xedatutakoa.

Kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzunkizun osoa udalaren aurrean, administrazio-klausula agiri honek jasotakoari eta kontratuaren nondik norakoei zorrozki lotuz, barne hartuta arlo sozialeko eta laboraleko betebeharrak betetzea.

Kasu honetan obraren aurrekontuaren %50ari dagozkion partidak azpikontratatu ahal izango dira, gehienez.

Azpikontratua egiteko, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Administrazioari zein azpikontratatu duen, eta azpikontratazioak kontratuaren zein zati egingo duen adierazi beharko



Usurbilgo Udala

du. Azpikontrataziori dagokion dokumentazioa zuinketa-akta sinatzeko unean aurkeztu beharko da.

Baldin kontratistak betetzen ez baditu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 227. artikuluan azpikontrataziorako jarritako baldintzak, edo goian zehaztutako azpikontrataziorako gehienezko muga berezia, 227.3. artikuluan araututako zigorra jarriko da. Kontratuaren lagatzearen inguruan, SPKLTBak 226. artikuluan zehazten dituen arauak bete beharko dira.

## II. KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

### **19. ESLEIPENAREN PROZEDURA ETA BALORAPEN IRIZPIDEAK**

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da. Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

#### **1.Prezioa: 0tik 51era baloratuko da (C gutunazala)**

Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza merkeenari eta gainerako eskaintzen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: biderkatu batetik eskaintza merke baxuenaren eta lizitatzaillearen eskaintza baloratuaren arteko zatiduraren emaitza eta bestetik irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

$$PI= Ob/OI \times 51$$

Non-eta:

PI: lizitatzaillearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikiena

OI: lizitatzaillearen eskaintza

Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKLTB-ko 152 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85. artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira.



Usurbilgo Udala

## **2. Txosten teknikoa eta lan egitasmoa: 0tik 30ra baloratuko da (B gutunazala)**

- 1.- Lan programa (7 puntu gehienez)
  - epea bete ahal izateko neurri zuzentzaileak
  - GANNT diagrama
- 2.- Gaur egungo egoera (5 puntu gehienez)
  - egungo egoeraren deskribapena
  - dauden instalakuntzen azterketa eta proposamena
- 3.- Obraren azterketa (5 puntu gehienez)
  - obrarako sarbideak eta inplantazioak
  - egin beharreko lanen deskribapena
- 4.- Lantaldearen antolaketa eta kudeaketa proposamena (5 puntu gehienez)
5. Proposatutako material eta baliabideak (makinaria ez direnak) (5 puntu gehienez)
- 6.- Erabili beharreko makinariaren deskribapena (3 puntu gehienez)

Proposamen teknikoan 15 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditzen ez duten eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

## **3. Berme epea zabaltzea: 0tik 10era baloratuko da (C gutunazala)**

Lizitatuzaileek kontratuaren berme epea zabaltzea dezakete. Urte bateko berme epea eskaintzen duenari 0 puntu emango zaizkio eta berme urte osagarri bakoitzeko 2 puntu emango dira. 6 urteko bermea eskaintzen duenari 10 puntu emango zaizkio.

## **4. Obra epea moztea: 0tik 5era baloratuko da (C gutunazala)**

Lizitatuzaileek obra gauzatzeko epea moztea dezake. Mozten duen 7 egun naturaleko epe bakoitzeko (tartekorik ez da onartuko) puntu bat, gehienez ere 5 puntu. Lizitatuzaileek proposatutako epea kontuan hartuta ezarriko dira berandutzeagatik zigorrak.

## **5. Obraren lanean arituko diren langileei aplikatuko zaizkien Lan Hitzarmena: 0tik 4ra baloratuko da (C gutunazala)**

- Estatuko eraikuntza lan hitzarmenak jasotako baldintzak aplikatzeagatik: 0 puntu
- Estatuko eraikuntza lan hitzarmena hobetzen duen lan hitzarmena aplikatzeagatik: 2 puntu



Usurbilgo Udala

- Gipuzkoako eraikuntza lan hitzarmena edo pareko edo hobeak diren lan baldintzak aplikatzeagatik: 4 puntu

## 20. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide hauek osatuko dute:

1. Xabier Arregi Iparragirre, Alkatea, Mahaiko Lehendakari gisa
2. Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Zerbitzu saileko zinegotzia, Bokal gisa
3. Garazi Etxeberria San Miguel, Udal Idazkaria, Bokal gisa
4. Karmele Lizaso Ubera, Udal Kontu-hartzailea, Bokal gisa
5. Felix Aizpurua Arzallus, Zerbitzu saileko burua, Bokal gisa
6. Olatz De Miguel Arnaiz, Kontratazio eta Pertsonal Teknikaria, Mahaiko idazkari gisa

Gainera, bilerara etorri ahal izango dira udaleko arduradun teknikariak, baldin eta mahaiak hala eskatzen badu, aholkularitza lanak egiteko.

## 21. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua xedatzen dituen debeku kasuetan sartuta ez badaude. Kaudimena 25. klausulan ezarritako baldintzen arabera egiaztatuko eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez parte hartu ahal izango dute, horretarako emandako ahalaren bidez. Kontratatzeko aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lizitatuzaileen helburua izango da kontratu honen xedearekin zuzeneko harremana duten jarduerak egitea, eta hori gauzatzeko, giza baldintzak eta beharrezkotzat jotzen diren baldintzak materialak izan beharko dituzte.



Usurbilgo Udala

## 22. ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Kontratazio honen espedientea honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Usurbilgo Udaleko Erregistroa. Joxe Martin Sagardia plaza z.g. Usurbil

ORDUTEGIA: 8etatik 14:30etara

EPEA: lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 26 egun naturaleko epean.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da honako atari informatiko edo webgunean: [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)

Eskaintzak arreta publikorako zehazturiko leku eta ordutegian aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta **26 egun naturaleko epean**, hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Proposamenak posta, telefax edo bitarteko elektronikoa, informatiko edo telematikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan xedatutako moduetan.

Proposamenak postaz bidaliz gero, enpresariak bidalketa data frogatu beharko du Posta bulegoan, eta kontratazio organoari eskaintzaren igorpena jakinarazi beharko dio telex, fax edo telegrama bidez egun berean, espediente zenbakia, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lizitatzailaren izena idatziz jasoz.

Aipaturiko telex, fax edo telegrama jaso izanaren egiaztapena udal Idazkariak luzaturiko dilijentzia bidez egingo da. Lizitazio iragarkian zehazturiko epea amaitu ondoren kontratazio organuak proposamenen bat jasoko balu bi ukanbehar horiek bete gabe ez da proposamen hori onartuko.

Edonola ere, epe horretatik 10 egun igarota aipaturiko agiriak ez balira jasoko hau ere ez da onartuko.

Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen erabilerak gainera azaroaren 14ko 3/2011 Errege



Usurbilgo Udala

Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginak bere hamaseigarren xedapen gehigarrian zehazturiko ukanbeharrak bete beharko ditu.

Lizitatuzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, halaber, aldi baterako enpresa proposamenik aurkeztu banako gisa eskaintzarik aurkeztu duen kasuetan edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagotan egonez gero. Arau hauen urraketak berak aurkezturiko eskaintza guztiak ez onartzea eragingo du.

Eskaintza aurkezteak plegu honetako klausulak baldintzarik gabe onartzea dakar.

### **23. ESKAINTZAK AURKEZTEKO MODUA**

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak itxitako 3 gutun-azaletan aurkeztuko dira, lizitatuzaileak sinaturik eta jakinarazpenetarako helbidea zehaztuz. Halaber, gutun-azalaren izendapena eta honako aipamena jasoko da: "USURBILGO ETXEBESTE ETA HIRUTASUNA KALEEN URBANIZAZIO OBRA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Gutun-azalen izendapena honako hau da:

- «A» gutun-azala: Agiri Administratiboak.
- «B» gutun-azala: Balore judizio baten arabeko balorapenerako agiriak.
- «C» gutun-azala: Eskaintza Ekonomikoa.

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena eta proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak idatziko dira, noren izenean sinatzen duen zehaztuz. Hiru gutun-azalak sinaturik egon behar dute.

Gutun-azal bakoitzean sartu beharreko agiriek originalak edo legeztaturikoak izan beharko dute, indarrean dagoen legediarekin bat.

Gutun-azal bakoitzaren barruan hurrengo agiriak eta hauen zerrenda zenbakitua sartuko dira:



Usurbilgo Udala

**“A” GUTUN-AZALA**  
**AGIRI ADMINISTRATIBOAK**

**a) Lizitzailearen Ardurapeko Aitorpena**, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzearena.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:

*ARDURAPEKO AITORPEN EREDUA*

*Izena:.....Helbidea: ..... NA zk. ...., telefonoa..  
....., Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasunaren jabe dela, bere izenean (edo .....  
.....ren ordez, helbidea  
..... eta NA edo IFK  
(.....), USURBILGO ETXEBESTE ETA HIRUTASUNA KALEEN  
URBANIZAZIO OBRA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO  
PROPOSAMENA kontratatzeko Usurbilgo Udalak deitutako prozedura irekia ezagutu eta bertan  
parte hartzeko interesa duenez*

*BERE ERANTZUNKIZUPEAN HONAKO HAU AITORTZEN DU:*

**LEHENENGO.** *Lizitzaileak Administrazioarekin kontratatzeko legalki eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta esleipendun izatea proposatuko balitz, kontratazio organoaren aurrean dagokion dokumentazioa aurkeztuko lukeela, esleipenaren aurretik, eskatzen diren dokumentuak dituela eta balekoak direla egiaztatzearen, 3/2011 E.D. Legegilearen 146 artikulua dionari jarraiki. Horrela, esleipenaren aurretik, pertsonalitate juridikoa, ordezkari, bere kasuan sailkapena/kaudimena eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez izateari buruzko dokumentazioa, eta oinarritan eskatzen den beste edozein aurkeztu beharko duela.*

**BIGARRENIK.** *Jakinazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau dela:.....*





Usurbilgo Udala

*Eta horrela jasota geratu dadin, honako aitorten hau sinatzen dut.*

....., 2017ko ..... aren ....(a)

*Izenpea*

### **“B” GUTUN-AZALA**

#### **BALORE JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO AGIRIAK**

Balore judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideei dagozkien agiriak barne hartuko ditu.

Ez dira aurkeztuko ez gutun-azal honetan eta ez A gutun-azalean ere berez C gutun-azalean jaso beharreko proposamena ezagutzeko aukera emango duten datuak. Eskaintzaren batek arau hori urratzen badu kanpo geratzea eragingo du.

### **“C” GUTUN-AZALA**

#### **ESKAINZA EKONOMIKOA**

Gutun-azal honetan ezin daiteke inola ere memoria teknikoa sartu, ezta balio-irizpen baten arabera baliosten diren esleipen-irizpideei dagokien eta beraz, B gutun-azalean sartu beharrekoa den beste edozein datu ere. Esandako datu horietako edozein C gutun-azalean sartzeak agiri horiek ez baliostea eragingo du, eta horrenbestez, automatikoki kuantifikatu beharreko esleipen-irizpideei dagozkien puntuak bakarrik emango zaizkio.

Honako eredu honen arabera aurkeztuko da:



Usurbilgo Udala

Izen-

abizenak.....Helbidea .....

..... Posta kodea ....., NAN zenbakia .....,

Telefonoa ....., Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero): Izen-

abizenak ..... NAN edo IFK zenbakia (pertsona fisiko edo juridikoa

denaren arabera), **USURBILGO ETXEBESTE ETA HIRUTASUNA KALEEN URBANIZAZIO OBRA**

**KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA** kontratatze

ko prozedura irekiko espedientea ezaguturik, adierazten dut kontratuaren oinarri diren Pleguak

ezagutzen ditudala eta osoki onartzen ditudala, lizitazioan parte hartuz eta kontratuaren edukia

burutuz honako prezio hauetan:

1) Hitz ematen dut obra lanak proiektuko banakako prezioen arabera gauzatuko ditudala, horiei honako jaitziera hau aplikatuz: .....% (bi hamartarrekin adierazi).

Hori horrela, hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €

(BEZ gabe), gehi ..... € (BEZ % ....) guztira BEZ barne.....ari

dagokiona. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein

tasa edo ariel, bai eta kontratistaren industri onura ere.

Bi datu hauen artean kontraesanik egonez gero baliozkotasuna portzentaiari emango zaio.

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudana enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

4) Ordezkatzen dudana enpresak obra honetan lanean ariko diren langileei honako baldintzak dituen lan hitzarmena aplikatuko diela (hiru aukeretatik bat aukeratu):

- Estatuko eraikuntzako lan hitzarmena, hobekuntzarik gabe.



Usurbilgo Udala

- Estatuko eraikuntzako lan hitzarmena hobetzen duten baldintzak dituen lan hitzarmena.
- Gipuzkoako Eraikuntza eta Obra Publikoetako Hitzarmen Kolektiboak jasotako lan baldintzak edo parekoak edo hobeak dituen lan hitzarmena.

5) Burututako obrak guztira..... urteko berme epea izango du.

6) Obrak burutzeko epea laburtu egingo dut: ..... egun naturaletan laburtu edo murriztuko dut.

....., 2017ko ..... aren ....(a)

*Izenpea*

## **24. AGIRIAK KALIFIKATZEA**

Kontratazio Mahaia osatuko da eta “A” gutun-azala ireki eta bertan jasoriko agiri administratiboak kalifikatuko ditu. Beharrezkoa izanez gero, Mahaiak gehienez ere hiru eguneko epea emango du lizitatzailleak aurkezturiko agirietan ikusi diren akats edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

Ondoren, judizio balore baten arabera irizpideak jasotzen dituen “B” gutun-azalak ireki eta aztertuko ditu jendaurrean. Proposamen horien irakurketaren ondoren, Mahaiak behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu, Pleguetan ezarritako irizpideen eta ponderazioen arabera balorapena egin ahal izateko.

Berriz ere Kontratazio Mahaia bildurik, judizio balore baten arabera irizpideen ponderazioa ezagutaraziko da jendaurrean eta ondoren “C” gutun-azalak irekiko dira.

Judizio balore baten arabera diren irizpideen balorapenaren (B gutun azala) eta ponderazio automatikokoak diren irizpideen (C gutun-azala) balorapenaren ondoren, Kontratazio Mahaiak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaila proposatuko du.



Usurbilgo Udala

Ekitaldi publikoaren tokia, eguna eta ordua [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) kontratatzailearen profilean adieraziko da.

## 25. AGIRIEN ESKAERA

Kontratazio-organuak ekonomikoki onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita HAMAR EGUN HABILETAKO epean aurkeztu ditzan Sektore Publikoko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua zehazten dituen aurretiazko ukanbeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituen agiriak (originalak edo kopia konpultsatuak) eta dagokion behin-betiko bermea ezarri izana.

a) Enpresaburuaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak:

- Nortasun Agiri Nazionala lizitatzailak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate bat ordezkatzuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzaila pertsona juridiko bat denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera inskribatuta egon behar badu. Inskribatuta egon behar ez badu, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, eraketa eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio egintza aurkeztu beharko da. Agiri horietan jardueraren arauak agertu beharko dute, beharrezkoa bada dagokion erregistro ofizialean inskribatuta. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek lanbide edo merkataritza erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, dena delako estatuko legediak baldintza hori eskatzen badu.
- Hainbat enpresaburuk aldi baterako enpresa elkarte bat eratu eta lizitaziora jotzen badute, taldekide bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa ekarriko du, adjudikaziodun suertatuz gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute aldi baterako enpresa elkarteko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.



Usurbilgo Udala

- b) Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.
- c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituela frogatzen duten agiriak.
- d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa egiaztatzen du(t)en agiria edo agiriak;  
- Urteko negozio bolumena, edota negozioen urteko bolumena, kontratuak hartzen duen eremuan: urtean gutxienez 360.000 euroko fakturazioa.
- e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz:  
- Azken 10 urteetan egindako lanen zerrenda exekuzio oneko ziurtagiri bidez, bertan zehaztuz hartzaileak, data, lekua eta kopurua eta lanak arloko arauak jarraituz eta egoki burutu zirela ere zehaztuz. Azken 10 urteetan gutxienez antzeko harri lana duen kale urbanizazio lan bi egin behar izan ditu kaudimena duela ulertzeko.  
- Horrez gain, galtzada-harrien lanetarako frogatu beharko du lantaldean hargina den langile bat duela edo lan horiek egiteko azpikontratatu duen enpresak horrelako langile bat duela. Langile horrek ikasketaz harri-lanen teknikari ikasketak dituela edo horrelako harri lanketa lanetan 5 urteko esperientzia duela frogatu beharko du.
- f) Atzerriko enpresek, kontratuan zuzenean edo zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako, mota guztietako auzitegi eta epaitegi espainiarren eskumenei men egingo dietela dioen aitortpena aurkeztu beharko dute, eta, behar izanez gero, lizitatzailleari dagokion atzerriko eskumen foruari uko egingo dietela adieraziko dute.
- g) Erantzukizun zibileko poliza eta eraikuntza arrisku orotarako poliza eta horien ordainketa ziurtagiriak.
- h) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lizitatzailleak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua



Usurbilgo Udala

badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

i) Egin beharreko azpikontratuaren zerrenda, adierazita kontratuaren zer zati egin behar duen azpikontratista bakoitzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak arautzen duen Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, a), b) eta c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria erregistroko letratu arduradunak egingo du.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. **Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.**

Administrazioarekin kontratatzeke eskaturiko gaitasun eta kaudimen baldintzak ematen direla aintzat hartzeko unea proposamenak aurkezteko epearen amaiera unea izango da.

## **26. BEHIN BETIKO BERMEA**

Ekonomikoki abantaila gehien dituen proposamena aurkeztu duen lizitatzailleak esleipen kopuruaren %5eko bermea eratu izana ziurtatu beharko du, Balio Erantsiaren Zerga kendurik.

Bermea ez da itzuli edo deuseztatuko berme epea amaitu eta kontratua modu egokian gauzatu arte.

Berme honek Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategineko 100. artikulua jasotako kontzeptuengatik erantzungo du, kontratua amaitzetik urte bateko epean.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager



Usurbilgo Udala

daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak. Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

## **27. KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Eskaturiko agiriak jaso ondoren, kontratazio organoak kontratua esleituko du. Esleipena hautagai edo lizitatzaille guztiei jakinaraziko zaie, eta aldi berean, Kontratatzaillearen Profilean argitaratuko da.

Jakinarazpena posta elektronikoz lizitatzailleek haien eskaintzetan jasotako helbide elektronikora bidaliz egin ahal izango da. Jakinarazpena ukatutzat emateko epea bost egunekoa izango da.

Kontratua esleitzen ez bazaio eskaintza ekonomikorik onuragarriena egin duen enpresa lizitatzailari hark ez dituelako bete baldintzak, beste deialdi berri bat egin baino lehen, administrazioak beste errekerimendu bat bidali ahal izango dio/die hurrengo lizitatzailari edo haren atzetik datozenei, betiere eskaintzak sailkaturik geratu diren hurrenkerari jarraituz, eta halako kasuan, enpresa lizitatzailleak bost egun baliodun izango du lehenago adierazitakoa betetzeko.

## **28. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

Kontratuaren formalizazioa administrazio-agiri gisa esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean egingo da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

## **29. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoaren arabera burutuko da.

Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektorre



Usurbilgo Udala

Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboa; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 3/2011 EDLaren aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Euskarazko eta gaztelaniazko agirien artean kontraesanik izanez gero, euskarazkoan zehaztutakoa nagusituko da.

### **30.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratu honetako aldean artean sortu litezkeen eztabaidak ebazteko ardura Administrazioarekiko Auzi-prozesuko Ordena izango da eskuduna, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onarturiko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren arabera.

Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bidez, indarrean dagoen legedian xedatutakoarekin bat.